# ANTZERKIA

## NEGUA 94 INVIERNO



2

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA

1994ko lehenengo hiruhileko honetan eskeintzen dizugun antzerki-programazioa, zuri, ikusle horri egiten dizugun gonbite bat da: gure antzerki abailduaren lau pareta-orrien artean hertsi eta errepresentazioaren mundu magikoan gurekin batera murgil zaitezen gonbitea, alegia, zer hobe hori baino, estatistikak, sintomak eta kanpo-krisiaren aieru txarrak uxatzeko? Horrela egitera, **Anfitrion**en maitasun-maltzurkeriekin gozatuko duzu, sakulako voyeur bihurtuko zara Iparreko **Biluzketa-Desnudo** onenen aurrean, **Alterio** erregeak **Escorial**en pairatzen dituen bufoikeriak ikusi eta konde jaunaz trufatu ahal izango duzu, edo **Nieva**ren **Nosferaturi** hortzak erakutsi, **Nola Rae** artista ingeles handiarekin **mimo**ekin hunkitu, zure arima **Tristana** galdosiar eder batez ematu, edota, barre zantzoka lehertuko zara **Lugaritz** kultur etxeko **umore antzerkiaren zikloa**rekin. Ez pentsa gero atrebentziok garesti pagatu beharko dituzunik, izan ere, soluziobide berri eta dibertsoak baititugu hori gerta ez dadin: "familia"koa bazara bost ikuskaritarako abonua gomendatzen dizugu; beti junto zatozten horientzat (fitxatuta zaudete!) talde-abonua pentsatu dugu; eta jubilatu leial horietakoa bazara, edota gaztea, edota langabetua, ez ahaztu: sarrera merkeagoa duzu. Beraz, badakizue: **GAUR ANTZERKIRA ETA GERO GEROKOAK**.

La programación teatral que te ofrecemos este primer trimestre de 1994, es una invitación para que tú, espectador, te encierres en las cuatro paredes de nuestro "maltrecho" teatro y compartas el mundo mágico de la ilusión teatral. ¿Qué mejor fórmula para olvidar las estadísticas, los síntomas y los augurios de la crisis exterior?. Aquí podrás disfrutar con las picardías amorosas de **Anfitrión**, convertirte en un aventajado *voyeur* ante los mejores **Desnudos** del norte, negar al "conde" con las bufonadas que el rey **Alterio** sufre en su **Escorial**, enseñarle los dientes al **Nosferatu** de **Nieva**, paralizarte con los **Mimos** de la gran artista inglesa **Nola Rae**, sosegarte con un bello **Tristana** galdosiano, y reirte a carcajadas con el ciclo de **Teatro de humor** de la Casa de Cultura **Lugaritz**. Y todo ello, con nuevas y variadas posibilidades de acceso para que tu cartera no se interrogue demasiado. Si eres de la "familia" te recomendamos nuestro abono para cinco espectáculos. Para vosotros que os tenemos fichados porque siempre venís juntos hemos pensado el abono colectivo, y no olvides tú joven, tú parado o tú, fiel espectador de la tercera edad, vuestra entrada a precio reducido. Ya lo sabes, **hoy al teatro y después...**

# VICTORIA EUGENIA



## 6-7-8-9 Enero

**"Feliz cumpleaños, señor ministro"** de Rafael Mendizabal. **Dirección:** Fermín Cabal. Con Iñaki Miramón, Paula Sebastián, Valentín Paredes, Tomás Gayo y Luis Hostalot. **Hora:** 20,00h.

## "FELIZ CUMPLEAÑOS, SEÑOR MINISTRO", POLITIKAREN INGURUKO KOMEDIA

Rafael Mendizabal idazle donostiarrak bere hirian estreinatuko du "Feliz cumpleaños, señor ministro" lana, zeinen osagaiak eguneroko bizitzan nonahi topatzen ditugun elementuak baitira: dirugosea, ustelkeria, adulterioa..., alegia. Egungo ingurune politiko-sozialarekin zerikusirik duen obra honen bitartez, egileak bi helburu bilatzen ditu, besteak beste, hots polemika sortzea, alde batetik, eta aurre egitea, bestetik, arrunt zabaldurik dagoen iritzi bati: estatuko antzerkilanek egungo problematikari ihes egiten dioteneko iritziari, alegia.

La historia se basa en un encuentro entre varios compañeros de internado, pasados los años, y en las reacciones que provoca la reunión de esos antiguos alumnos. En el reparto de esta comedia de tintes políticos figuran nombres de actores como Iñaki Miramón, Paula Sebastián, Valentín Paredes, Tomás Gayo y Luis Hostalot, mientras que se presenta a Fermín Cabal como responsables de la dirección.



## 14-15-16 Enero

**EOLO TEATRO "desNUDOS"** de Joan Casas. **Dirección:** Rafael Durán. Con Paco Obregón y Zutoia Alarcia. **Hora:** 20,00h.

# BIKOTE-HARREMANAK EOLOREN IKUSPUNTUTIK

Eolo Teatro taldeak "desNUDOS" izeneko antzezlana dakarkigu: bikote-harremanen konplexutasuna xehatu eta azalerazten duen komedia dramatiko bat, alegia. Joan Casas egile kataluniarraren obra batean oinarrituriko produkzio hau, nazionalitate bereko Rafael Duranek zuzendua da, protagonistak Paco Obregon aktore bizkaitarra eta Zutoia Alarcia aktoresa direlarik.

Estrenada el pasado mes de octubre en Basauri, llega ahora a San Sebastián con el sello de ser el primer espectáculo producido por Eolo Teatro, nueva empresa dedicada al mundo del escenario, con el durangués Paco Obregón y el irundarra Xabi Puerta como fundadores y principales responsables. Un veterano actor -además de director de escena- y un autor teatral -además de guionista- dispuestos a iniciar una nueva aventura y poner a prueba sus conocimientos teatrales.





## 28-29-30 Enero

**TEATRO DEL SUR "Anfitrión"** de Plauto y Molière. **Dirección:** Francisco Orduño. Con José Mª Castilla y Lola Martín. **Hora:** 20,00h.

# TEATRO DEL SUR TALDEAK PLAUTOREN "ANFITRION" LAN KLASIKOA BERRESZENARATZEN DU

Laugarrena duten ikuskari honetarako, Teatro del Sur konpainiak literatura grekolatinora jo du, Plauto antzerkigile erromatar ospetsuaren "Anfitrión" obra aukeratu duelarik. Moliere-rena ere baden komedia honetan, zati mintzatu arruntez batera, musikaz lagunduta datozen zati errezitatuak ematen dira, bai eta dantzez nahiz mimo-mugimenduez lagunduriko agerraldi kantatuak ere. Hona hemen antzerkiaren sustraietan murgiltzen den istorio honen argumentua: Jupiter jainko erromatarrra Anfitrionen emaztea den Alcmenaz maitemindurik dago.

Un montaje que cuenta, desde las raíces del teatro, cómo la divinidad romana Júpiter, enamorado de Alcmena, disfruta de una noche de amor con ésta, tras adoptar el aspecto físico de su esposo, Anfitrión, ausente de la casa. Farsa y tragedia dirigida por Francisco Orduño, a través de una versión del clásico, representado en esta ocasión como si de una función de cómicos ambulantes se tratara. Una comedia de equívocos y enredos con José Mª Castilla (Chefra) y Lola Martín en los papeles de Anfitrión y Alcmena, respectivamente.



## 4-5-6 Febrero

**TEATRO DE LA DANZA DE MADRID "Escorial"** de Michel de Ghelderode.Versión de Luis Olmos. Con Héctor Alterio, Roberto Alvarez y Lola Greco. **Hora:** 20,00h.

# "ESCORIAL" EDO BOTEREAREN KARIKATURA

Teatro de la Danza de Madrid taldearen azkeneko produkzioan ("Escorial") Héctor Alteriok eta Lola Grecok bizitasun berezia ematen diete euren pertsonaiei. Duela ez asko Victoria Eugenian "Los Gatos" jokatzen ikusi ahal izan genuen aktore ospetsua lehenengoa, flamenco-dantzari bikaina bigarrena, Michel Ghelderode antzerkigile belgiarraren obra homonimoan oinarriturik Luis Olmosek moldaturiko aldaera honetan parte hartzen dute.

Un drama que sirve una caricatura sobre el poder, un poder representado por un amargado y mugriento rey inquisitorial español de hace cuatro siglos, interpretado por Alterio. Un monarca que solicita a su bufón (Roberto Alvarez) un cambio de papeles temporal. El bufón toma el cetro y la corona, para vivir unos instantes que marcarán definitivamente su existencia. El Teatro de la Danza, fiel a su costumbre de introducir elementos coreográficos, tiene en la madrileña Lola Greco a una Muerte española que se expresa a través de sus gestos y taconeos.

VICTORIA EUGENIA



## 17-18-19 Febrero

**CENTRO NACIONAL NUEVAS TENDENCIAS ESCENICAS**
**"Nosferatu"** de Francisco Nieva. **Dirección:** Guillermo Heras. Con Nancho Novo. **Hora:** 20,00h.

# "NOSFERATU" FRANCISCO NIEVAREN BANPIRO HIRITAR HEZIKAITZA

Centro Nacional de Nuevas Tendencias taldeak, antzerki-bibliografia espainiarra arakatuz, Francisco Nieva, 1992ko "Asturiasko Printzea" saridunak, 1961ean idatziriko "Aquelarre y noche roja de Nosferatu"rekin topo egin eta eszenara ekarri du. Guillermo Herasen zuzendaritzapean, aktore gazte multzo bat Ciudad Realeko idazlearen obra bat estreinatzeko abenturan abiatu da.

Lejos del teatro más clásico, "Nosferatu" es un experimento influído por las corrientes culturales europeas de aquellos años. En el espectáculo se presenta a una rebelde vampiro urbano Nosferatu Pitiflauti que rompe las barreras de la decencia y se encarga de contagiar la epidemia del "mal" a su alrededor. Una figura que poco comparte con la recreación romántica del director de cine Francis Ford Coppola ("Drácula"), y que es interpretada por el actor Nancho Novo, más conocido por su papel como protagonista masculino en la película de Julio Medem "La ardilla roja".




## 3 Marzo

**NOLA RAE Y SALLY OWEN** (Teatro de mimo) **"Y el barco zarpó" Dirección:** Carlos Trafic. **Hora:** 20,00h.

# NOLA RAEK KEINU EGITEN DIGU MIMO-ANTZERKITIK

"Y el barco zarpó" ("And the ship sailed on") da espainar estatu kanpotik Kultur Udal Patronatuaren programaziora ekarri dugun obra. Mimoaren arloan garrantzitsuenetakoa den Nola Rae aktriz australiarrak eta Sally Owen bitrainiar koreografo eta dantzariak jokaturiko obra honek mimo-antzerkia nabarmendu nahi du, izan ere, arlo hau mesprezatua izan baita sarritan, tajuzko motiburik gabe, egia esan.

La obra narra las problemáticas relaciones entre Nola y Sally a bordo de un barco que conduce hacia lo desconocido. En clave cómica, aunque con incisos dramáticos también, se desgrana la comprometida situación que se ven obligadas a compartir dos mujeres prácticamente incompatibles. El montaje está dirigido por el director y actor argentino, afincado en Holanda, Carlos Trafic, y supone una interesante ocasión para contemplar el saber hacer de Nola Rae, aventajada discípula del maestro de la pantomima Marcel Marceau.





## 25-26-27 Marzo

**"Tristana"** de Benito Pérez Galdós. **Dirección:** Manuel Angel Egea. Con Victoria Vera, Fidel Almansa, Angel Amorós, Manuel de Blas y Sonsoles Benedicto. **Hora:** 20,00h.

# VICTORIA VERA "TRISTANA" DA

Victoria Vera da Benito Perez Galdosek (Las Palmas, 1843 - Madrid, 1920) idatziriko "Tristana" elaberriaren antzerki-moldaketa honetako protagonista. Tristana bere kasa, independiente bizi nahi duen emakumea da, On Lope Garrido hirurogei urtetik gorako agurearekin bizitzera derrigortu nahi duen inguruneari aurre egin behar diona. Bere garaian Luis Buñuelek zinerako bezala, antzerkirako moldatu du oraingoan Enrique Llovetek Perez Galdosek 1892an idatziriko testu dramatiko hau.

La puesta en escena en San Sebastián rinde homenaje al brillante autor canario, un nombre clave de la literatura estatal contemporánea del que se cumplieron en mayo del 93 los 150 años de su nacimiento. "Tristana" está dirigida por Manuel Angel Egea y cuenta en su reparto -además de Victoria Vera- con Fidel Almansa, Angel Amorós, Manuel de Blas y Sonsoles Benedicto, entre otros actores.

# LUGARITZ
# PARA MORIRSE DE RISA / UMOREZKO ZIKLOA

## 28-29 Enero

**LOURVIER'S "Rizando las ondas" Hora:** 20,00h.

### LOURVIER'S TALDEAK IRRATIAREN MUNDUARI TXORO-TXORO HELDU

"Rizando las ondas" obrarekin txoro-txoro hurbiltzen zaio Lourvier's talde donostiarra irrati munduari, ez oraingo irratiari, ordea, antzinakoari baizik, programak zuzenean, tranparik gabe, egiten ziren irrati hari. Lourdes Bedia, Javier Merino, Ana Paula Jáuregui eta Oscar Terol aktoreek euren irratialdi eroak transmititzen dituzte "Radio Potosí"tik, euren programa fantasiosoen bidez, izar ospetsuen bitartez, talentu berriak aurkitzeko lehiaketez...

"Rizando las ondas" es la loca aproximación de los donostiarras Lourvier's al mundo de la radio de antaño, aquella en la que los programas se realizaban en directo, sin trampa ni cartón. Desde Radio Potosí Lourdes Bedia, Javier Merino, Ana Paula Jáuregui y Oscar Terol transmiten sus fantasiosos programas y sus locuras radiofónicas, a través de carismáticas estrellas, concursos de nuevos talentos...

## 4-5 Febrero

**PIKOR TEATRO "Azúcar & Vinagre" Hora:** 20,00h.

### OHIZ EZ BEZALAKO SORGINA

"Azúcar & Vinagre" Pikor antzez-talde arabarraren laugarren ekoizpena da, publiko gazte eta helduari zuzentzen zaiona. Istorioak Socorroren bizimodu petrala kontatzen digu; izan ere, etxekoandre bat baita Soko-rro, lagun bakarra Auxilio erratza duena. "Akerrak ada-rrak okerrak ditu" sorgi-naren helduerak eta honek prestatuko duen edabe miresgarria moskatel-optali-doi-janari erreaz eginak bi-zimodu petral hori eralda-tuko dute.



Los alaveses de Pikor Teatro presentan "Azúcar & Vinagre", un cómico espectáculo di-rigido al público joven y adul-to. El espectador contem-pla la sufrida existencia de Socorro, un ama de casa que tiene como única com-pañera a su escoba Auxilio. Una pócima mágica a base de moscatel, optalidones y co-mida quemada cambiará su existencia con la llegada de la bruja Akerrak Adar Okerrak Ditu.

## 25-26 Febrero

**TEATRO COCTEL "Mujercitas" Hora:** 20,00h.

### MAGIA ZUENGAN DAGO "MUJERCITAS"

Teatro Cóctel "Mujercitas" lanarekin datorkigu umorearen zita honetara. Beatriz Santiagok eta Paloma Tabascok jokatzen duten sei sketcheko obra honek Madrilen eta Madriletik bizi diren bost emakumeren kezka hiritarren berri ematen digu. Lan hau antzerki mota askoren topagune gertatzen da: kabaretetik antzerki so-zialeraino, beste zen-bait arlo bazterrean utzi gabe.



Teatro Cóctel acude a la cita del humor con su espectáculo "Mujercitas", un conjunto de seis sketchs interpretados por Beatriz Santiago y Paloma Tabasco. Un alterna-tivo montaje que refleja las inquietudes urbanas de cinco mujeres que viven y se alimentan de Madrid. La producción es un punto de encuentro para las más variadas clases de teatro, desde el cabaret, por la música y el baile, hasta el teatro social, por su atención hacia la realidad cotidiana, sin olvidar otros estilos de trabajo.

## 18 Marzo

**TRAPU ZAHARRA "Tarde de sábado" Hora:** 20,00h.

### LARUNBAT ARRATSALDE BATERAKO DENBORAPASARIK ONENA

Trapu Zaharra taldeak umore-antzerkiaren bideari eusten dio, leial, eta "Tarde de sábado" bide horretan egiten duen txango berria da. Errenteriarrek lapur-bikote ez-ohizko bat aurkezten digute. Senar-emazte batzuk dira hauek, larunbat arratsalde batean bankuren batean lapurreta egin nahi dutenak. Denak itxita daudela konturatzean, baina, abangoardiako ikuskizun ulertezin bat ematen ari den antzokiko dirubilketa ostutzea erabakitzen dute.

Trapu Zaharra se mantiene fiel al teatro de humor y "Tarde de sábado" es su última apuesta en ese sentido. Los renterianos presentan a una atípica pareja de ladrones formada por un matrimonio que pretende robar algún banco una "Tarde de sábado", aunque al descubrir que están todos cerrados se decide por atracar un teatro, con la intención de quedarse con la recaudación de la taquilla de un incomprensible espectáculo de vanguardia.

# HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

LUGARITZ
T. PRINCIPAL

**14 Enero. Hora:** 18,00h.
**6 y 13 Marzo. Hora:** 12,00h.
**PETER ROBERTS "Marratxo".**

## "MARRATXO" PETER ROBERTSEN IRATXO JOLASKOR BIHURRIA

"Marratxo" hezitzaile eta pedagogiko izan nahi duen lan bat da, 5-10 urte bitarte haurrentzako egina. Peter Roberts eta Ana Azpeitia dira ikusentzuleen eta eszenategiaren arteko etengabeko elkarrizketa bilatzen duen ikuskizun honetako aktoreak. Protagonista "Marratxo" da, egindako bihurrikeriak direla eta bidaia luzea egitera zigortzen duten 103 urteko iratxo "gazte" bihurri eta jostalaria.

"Marratxo" es una obra infantil con fines educativos y pedagógicos dirigida fundamentalmente a niños de 5 a 10 años. Peter Roberts y Ana Azpeitia son los actores de un espectáculo que establece un constante diálogo entre público y escenario, a través del protagonista, el travieso duende "Marratxo", un "joven" de 103 años que es obligado a hacer un largo viaje, como castigo por sus trastadas.

T. PRINCIPAL

**6 y 13 Febrero.**
**JAKE-MATE "Joku-Moku". Hora:** 12,00h.

## "JOKU-MOKU" JAKE-MATEREN BIDEOA

Jake-Matekoek "Joku-moku" lana aurkezten dute. Bideo-makina batek denborapasako punta-puntako programak ditu, baina halabeharrezko matxura gertatu eta promamon ezean haurrak eta bideoko pertsonaiak harremanetan jarri eta beste jolas-mota batzuk topatu beharko dituzte. Bideo-jokuen mundu eztabaidatsua baliatuz, gaztetxoen partehartzearen bila abiatzen da Jake-Materen muntaia honetan.



Los renterianos Jake-Mate presentan su video juego "Joku-Moku", una video máquina que cuenta con sus programas de entretenimiento estrella, aunque una imprevista avería se encargará de que los personajes del video juego y los niños se relacionen para buscar otras formas de jugar, al no poder disponer de los programas originales. El polémico mundo de los video juegos sirve de fuente de inspiración a Jake-Mate para buscar la participación de los más jóvenes en su último montaje.

HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

LUGARITZ

**18 Febrero.**
**HIKA "Aguro" Hora:** 18,00h.

## DENOK "HIKA" TALDEAREN SORGIN LAPURRAREN AURKA

Umorezko abentura batekin, "Aguro", aurkezten zaigu Hika taldea Lugaritzen. Neska gaztetxo bat bidaia batean abiatzen da, ortzadarreko margoak lapurtzen dituen sorginari aurre egitearren. Bere kasako abiatzea, ordea, kuttunen duen musikaren erritmoan, "rap"enean, egiten baitu. Garbi Losadak zuzenduriko euskarazko ikuskari hau Agurtzane Intxaurragaren ipuin batean oinarriturik dago.



Hika se presenta en Lugaritz con una humorística aventura, "Aguro", que obliga a una joven a emprender un viaje para enfrentarse con la bruja ladrona de los colores del arco irirs. La chica se decide a lanzarse tras los pasos de la bruja, eso sí, al ritmo de su música favorita, el "rap". El espectáculo ha sido dirigido por Garbi Losada y está basado en un cuento de Agurtzane Intxaurraga.

T. PRINCIPAL

**20 Febrero.**
**TXOTXONGILO "Erreka Mari". Hora:** 12,00h.
**27 Febrero.**
**TXOTXONGILO "Altxor bat patrikan". Hora:** 12,00h.

## PROGRAMA BIKOITZA "TXOTXONGILO"REKIN

Txotxongilo taldearen marioneten miresleak suertez daude, izan ere antiguotarren bi muntaia ikusteko parada izango baitute: "Erreka Mari" eta "Altxor bat patrikan", alegia, Enkarni Genuak idatzi eta euskaraz emango direnak. "Erreka Mari"k euskal mitologiaren pertsonaia baten istorioa kontatzen digu: azken lamiarena. "Altxor bat patrikan" bi marioneta txikiren arteko liskarrei buruzko muntaia jolaskorra da. Bi marionetok -Aupi eta Puaf- gabardina baten patrikan bizi dira; Aupi baikor eta alaia da, Puaf, berriz, ezkor eta tristea.

Los fans de las marionetas de los antiguotarras Txontxongilo cuentan con la oportunidad de disfrutar de dos de sus montajes, "Erreka Mari" y "Altxor bat patrikan", ambos en euskera y escritos por Enkarni Genua. "Erreka Mari" narra la historia de un personaje de la mitología vasca, la última lamina. "Altxor bat patrikan" es un entretenido montaje basado en las diferencias de dos pequeñas marionetas, Aupi -optimista y alegre- y Puaf -pesimista y triste-, que viven en el bolsillo de una gabardina.

# HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

## 20 Marzo

**T. PRINCIPAL**

**FREGOLI "Nondik?". Hora:** 12,00h.

## FREGOLIK SEXU-HEZIKETAZKO IKASTALDI BAT EMATEN DU

Frégoli-ko donostiarrek sexualitatearen gaiari heltzen diote "Nondik?" izeneko antzezlanean, Era honetara muntaia hau gaztetxoei eskainiriko sexu-heziketazko ikastaldia bihurtzen delarik. Ikuskariko bi pertsonaiak diren obuloaren eta espermatozoidearen arteko elkarrizketa medio, gaztetxoenek sexualitateari buruzko galdera askoren erantzuna era jostagarrian eskuratzeko posibilitatea dute; izan ere, askotxo baitira sexualitateari buruz sortzen zaizkien galderak, euren gurasoei egiten dizkietenak, edo, bederen, gustora egingo lizkieketenak.




Los donostiarras de Frégoli apuestan en "Nondik?" por tocar el tema de la sexualidad, de manera que su montaje se convierte en una clase de educación sexual para los más jóvenes. La obra se desarrolla de forma divertida, a través de los comentarios y diálogos de los dos personajes del espectáculo, un óvulo y un espermatozoide. Los más pequeños tienen la oportunidad, una animada posibilidad, de encontrar respuestas a muchas de las preguntas sobre la sexualidad que se hacen a ellos mismos o a sus padres.

## 25 Marzo.

**LUGARITZ**

**TXOTXONGILO TALDEA "Ipurtargi". Hora:** 18,00h.

## "IPURTARGI" TXIKIAREN IPUINAK

Txotxongilo talde antiguotarraren marionetek programazioan eurentzako ere lekutxo bat eskatu eta hona hemen heldu dirade "Ipurtargia"kin. Haurrentzako euren lanen artean txikienentzako den honetan, euskarazko lau ipuin kontatzen dira, bakoitza urtaro bati dagokiona, Ipurtargiren bitartez. Sehaska ipuinak deitu izan die Enkarni Genuak, eta maitasunaz, izadiaz eta abarrez mintzo datozkigu.

Las marionetas de los antiguotarras Txotxongilo reclaman un hueco en la programación, con su creación más infantil, "Ipurtargi". Manolo Gómez y Enkarni Genua, a través de la pequeña luciérnaga Ipurtargi, narran -en euskera- cuatro cuentos enmarcados en otoño, primavera, verano e invierno. Cuatro cuentos, calificados por Enkarni Genua como "cuentos de cuna".

# ANTZERKIRA ABONATU ZAITEZ

Eta honako onura hauek eskuratuko dituzu Victoria Eugenia Antzokian: Prezio bereziak- %40-%60 bitarteko beherapenak, abonu motaren arabera. **Egunak aukeratzeko erraztasuna**- seihileko programazioa etxera bidaliko dizugu, aurretiaz aukeratu ahal dezazun. **Lehentasuna erreserbak**- erreserbak telefonoz egin ahal izango dituzu, honela eserleku onenak aukeratu ahal izango dituzularik.

## SEIHILEKO ABONUA

Seihilekoan zehar programaziotik zeuk aukeraturiko bost ikuskaritarako abonua egiteko posibilitatea eskaintzen dizugu. Antzezlanak eta dagozkien egunak aukeratu eta telefonoz erreserbatu ditzakezu.

**Besaulkiak, plateak eta palkuak. 5.000.- pta.**
**Balkoia. 4.000.- pta.**
**Anfiteatroa. 3.000.- pta.**

## TALDE-ABONUA

Lagunekin etorri nahi izanez gero, aukera ona duzu, izan ere sei lagun (edo gehiago) elkartuz gero, prezio berezia izango baituzu. Prezioak ikuskari eta pertsonako:

**Besaulkiak, plateak eta palkuak. 1.000.- pta.**
**Balkoia. 800.- pta.**
**Anfiteatroa. 600.- pta.**

## PREZIO BEREZIA

Gaztea, langabetua edo jubilatua baldin bazara, prezio berezia izango duzu, **800.- pezetako** prezio baka-rra antzokiko edozein eserlekurako, dagokizun txartel edo ziurtagiria aurkezte hutsarekin (gazte txartela, langabezi txartela,...).

## ESKOLA-TALDEAK

KULTUR UDAL PATRONATUAK, GAZTERI SAILArekin batera, eskeintza berezia egiten die ikastetxe taldeei: **800.- pezeta** ikasleko. Telefonoz ikastetxearen izena eman eta nahi den sarrera-kopurua adieraztea aski izango da erreserba egin ahal izateko.

## FIDELTASUNARI SARIA

Lugaritzen antolaturiko funtzioetara joaten bazara, sarrera gorde! Victoria Eugenia Antzokiko takiletan sarrera hori erakutsiz gero prezio murriztuan **800.- pezeta** eskuratuko duzu sarrera.

**ERRESERBAK EGITEKO GURE TELEFONOA: 48 11 55**

**Sarrerak:**

Victoria Eugenia Antzokia:

| | |
|---|---|
| Besulkia, palko eta platea | 1.600'- pta |
| Balkoia | 1.200'- pta |
| Anfiteatroa | 1.000'- pta |
| Prezio murriztua | 800'- pta |

| | | |
|---|---|---|
| Antzoki Zaharra: | Haur antzerkia | 500'- pta |
| Lugaritz Kultur Etxea: | Helduen antzerkia | 800'- pta |
| | Prezio murriztua | 500'- pta |
| | Haur antzerkia | 300'- pta |

# ABONATE AL TEATRO

Y beneficiate de las siguientes ventajas: Tarifas más bajas- de 40% a 60% de reducción según el tipo de abono. **Elección libre de fechas** - la programación semestral te será enviada a domicilio para que puedas elegir con antelación. **Prioridad en la reserva** - podrás reservar telefónicamente tu localidad y elegir los mejores emplazamientos.

## ABONO SEMESTRAL

Te ofrecemos la posibilidad de comprar un abono para cinco espectáculos programados durante el semestre. Sólo tienes que seleccionar la obra y la fecha. Con una llamada telefónica tendrás tu reserva.

**Butaca, plateas y palcos. 5.000 pts.**
**Balcón. 4.000 pts.**
**Anfiteatro. 3.000 pts.**

## ABONO COLECTIVO

Si has quedado en venir al teatro con tus amigos, ¡júntate!, porque a partir de seis personas puedes beneficiarte de una tarifa reducida.

**Butacas, plateas y palcos. 1.000 pts.**
**Balcón. 800 pts.**
**Anfiteatro. 600 pts.**

## PRECIO REDUCIDO

Jóvenes, desempleados y tercera edad, podeis comprar vuestra localidad a precio reducido. Un precio único de **800 pts.** para cualquier localidad del teatro. Recuerda que tendrás que presentar tu carnet-justificante (gazte-txartela, tarjeta INEM...).

## GRUPOS ESCOLARES

En colaboración con el DEPARTAMENTO DE JUVENTUD, los grupos de escolares pueden acceder al precio reducido de **800 Pts.** Basta con notificar telefónicamente el nombre del Centro Escolar y el número de localidades deseadas, para obtener la reserva de entradas.

## PREMIO A LA FIDELIDAD

Si asistes a las funciones programadas en Lugaritz¡Guarda tu entrada!. Sólo tendrás que presentarla en la taquilla del Teatro Victoria Eugenia para acceder al precio reducido, **800.- pts.**

## NUESTRO TELEFONO DE RESERVAS: 48 11 55

**Entradas:**

Teatro Victoria Eugenia:

| | |
|---|---|
| Butaca, platea y palco | 1.600'- pts |
| Balcón | 1.200'- pts |
| Anfiteatro | 1.000'- pts |
| Precio reducido | 800'- pts |

| | |
|---|---|
| Teatro Principal: Teatro infantil | 500'- pts |
| Casa Cultura Lugaritz: Teatro adulto | 800'- pts |
| Precio reducido | 500'- pts |
| Teatro infantil | 300'- pts |

# EL CHIVATO

## TEATRO VICTORIA EUGENIA

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "HISTORIETAS"* | 3 | 3 | 910 | 303 | 2.192.000 |
| "EL CERDO" | 2 | 2 | 2.010 | 1.005 | 2.734.000 |
| "PERDONEN LA TRISTEZA" | 1 | 1 | 68 | 68 | 81.200 |
| "NAFARROA" | 1 | 1 | 252 | 252 | 252.000 |
| "CARCAJADA SALVAJE" | 3 | 4 | 1.831 | 457 | 2.702.800 |
| "LA CACATUA VERDE"* | 4 | 4 | 1.216 | 304 | 1.479.000 |
| "NOCHE DE REYES" | 3 | 3 | 543 | 181 | 62.400 |
| "M.BUTTERFLY" | 2 | 2 | 2.018 | 1.009 | 5.584.500 |
| "EL ULTIMO AMANTE" | 3 | 3 | 491 | 164 | 687.200 |
| "BAILANDO EN VERANO" | 3 | 3 | 558 | 186 | 754.600 |
| **TOTAL** | **25** | **26** | **9.897** | **381** | **17.088.700** |

*NO SE CUENTAN LAS FUNCIONES ESCOLARES
DIAS PROGRAMACION TEATRAL- 25
TOTAL FUNCIONES- 26

TOTAL ESPECTADORES- 9.897
MEDIA ESPECT/FUNCION- 381
RECAUDACION- 17.088.700'- pts

## CASA DE CULTURA DE LUGARITZ

| OBRA | Nº DIAS | Nº FUNC | Nº ESPEC | MEDIA ESPEC | RECAUDAC |
|---|---|---|---|---|---|
| "CONSTANZA" | 1 | 1 | 66 | 66 | 36.900 |
| "ISLA MARIANA" | 1 | 1 | 115 | 115 | 60.500 |
| "LA NOCHE DE LOS ASESINOS" | 1 | 1 | 114 | 114 | 52.000 |
| "EL BORRACHO BURLADO" | 2 | 2 | 419 | 209 | 122.250 |
| **TOTAL** | **5** | **5** | **714** | **142** | **272.650** |

DIAS PROGRAMACION TEATRAL- 5
(sólo teatro adultos)
TOTAL FUNCIONES- 5

TOTAL ESPECTADORES- 714
MEDIA ESPECTADORES/FUNCION- 142
RECAUDACION- 272.650'- pts

# EGITARAUA

**6, 7, 8 y 9 Enero**

**"Feliz cumpleaños, señor ministro"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**14 Enero**

**PETER ROBERTS**
**"Marratxo"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

**14, 15 y 16 Enero**

**EOLO TEATRO**
**"desNUDOS"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**22 Enero**

**KUKUBILTXO**
**"Errieta"**
Calles del barrio del ANTIGUO

**28 y 29 Enero**

**LOURVIER'S**
**"Rizando las ondas"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**28, 29 y 30 Enero**

**TEATRO DEL SUR**
**"Anfitrión"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**4 y 5 Febrero**

**PIKOR TEATRO**
**"Azúcar & Vinagre"**
C. C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**4, 5 y 6 Febrero**

**TEATRO DE LA DANZA DE MADRID**
**"Escorial"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**6 y 13 Febrero**

**JAKE-MATE**
**"Joku-Moku"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**17, 18 y 19 Febrero**

**CENTRO NACIONAL DE NUEVAS TENDENCIAS ESCENICAS**
**"Nosferatu"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.


# EGITARAUA


**18 Febrero**

**HIKA**
**"Aguro"**
C. C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

**20 Febrero**

**TXONTXONGILO TALDEA**
**"Erreka Mari"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**25 y 26 Febrero**

**TEATRO COCTEL**
**"Mujercitas"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**27 Febrero**

**TXONTXONGILO TALDEA**
**"Altxor bat patrikan"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**3 Marzo**

**NOLA RAE Y SALLY OWEN**
**"Y el barco zarpó"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

**6 y 13 Marzo**

**PETER ROBERTS**
**"Marratxo"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**18 Marzo**

**TRAPU ZAHARRA**
**"Tarde de sábado"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 20,00h.

**20 Marzo**

**FREGOLI**
**"Nondik?"**
TEATRO PRINCIPAL
Hora: 12,00h.

**25 Marzo**

**TXONTXONGILO TALDEA**
**"Ipurtargi"**
C.C. LUGARITZ
Hora: 18,00h.

**25, 26 y 27 Marzo**

**"Tristana"**
TEATRO VICTORIA EUGENIA
Hora: 20,00h.

